

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure produktua enpresaren web-gunean eros daiteke. Bertan, enpresarekin kontaktu zuzenean jartzeko posta elektronikoa eta telefonoa dago. Produktuarekin arazoren bat edukiz gero, erreklamazio zerbitzu eskaintzen dugu eta, fabrika-akatsa bada, onongo kosturik gabe gure kabuz konponduko dugu.

Horretaz gain, laguntza zerbitzu bat ere badaukagu, non produktuaren erabileraren azalpena, mekanismoari buruzko informazioa, gomendioak eta gehien galdetutako galderei erantzunak egongo diren. Hori irakurri eta gero zalantza ez bada argitu, zuzenean guri galdetzeko aukera dago bi modutan: mezu bidezko galdera eta telefono deia.



Bezeroekin dugun harremana errespetuzkoa da. Gure produktua adin handiko pertsoneri zuzenduta dago gehien bat, eta badakigu askok arazoak edukiko dituztela gure zerbitzuak erabiltzen ikasteko; horregatik pazientzia handiko langileak dira bezeroak laguntzeaz arduratzen direnak.

Gainera, gure bezeroei aire-konprimituen erosketa errazteko, gure produktua erostearekin batera eskaintza-txartel bat oparituko diegu Aliexpress dendan aire-konprimituko kapsulak erosteko.